




Guillermo Vío

J

RAN: Jomeini, islamismoa, emakumeek eraman beharreko beloa.... halakoxeak dira burura dakizkigukeen asmo eta hitzak lurralde honen izena entzun orduko. Errealitateak aldiz, beti gertatzen den bezalaxe, estereotipo guztiak gainditzen ditu.

Iran: beroa, basamortua, area... eta berriro ere, etxean pentsatutakoak huts egiten du errealitateari aurre egitean; guk hotza, mendiak eta elurra aurkitu baikenuen Irango iparraldean, Teheran hiriburutik gertu eta Kaspio itsasoari so dagoen Elburz mendikatean.



Irango mendiak. Apunte batzuk

■ SACHAL ATERPEAREN INGURUKO MENDIAK

LEHEN ZATIA

INGURU honetan aurkitzen dira Irango igoerarik interesgarrienak eta altuenak

eta bertan egin daitezke oinarriko erosketa guztiak ondo hornituta dauden zenbait dendatan. Herriko kanpo aldean, 1500 metro-

Inguru honetan aurkitzen dira Irango igoerarik interesgarrienak eta altuenak, lurraldeko tontorrik garaie-na den Damavand izan ezik. Sachal aterpea 3850 metrotan dago kokatuta eta bertara igotzeko Roobarak herria dugu abiapunturik gertuena. Herri hau 1300 metrotan aurkitzen da

tan, Mendi Federakuntzaren aterpea dago, garbi eta ondo zaindua; gaua emateko eta mendiei buruzko informazioa lortzeko leku ezin egokiagoa.

Igoeraren lehenengo zatia erraztu ahal izateko todoterrenoren bat alokatzea merezi du pista bukatzen den tokiraino (2400 m) eta handik, 4 ordutan edo, Sachalera hel daiteke haran aldapatsua gaindituz. Igoeraren bigarren zati honetarako zakutoaketa igotzeko mandoak aloka daitezke. Sachal aterpea ez da zoragarria baina onartzeko modukoa: gela batzuetako eraikina, nahiko garbia eta egurrezko oholtzekin lozakoa luzatzeko. Koltxonetak, sukaldeko tresnak e.a. igo behar dira. Iturritxoak egon badago, beraz teoriaran ura ez da faltatu behar, baina abuztu honetan ur eskasia handia zegoen eta zailtasun handiak izan genituen ura uneoro lortzeko. (Askotan glaziarretik ekarri behar izan genituen bidoiak). Aterpearen aurreko aldean, metro batzuk beherago, kanpa daiteke. Aipa ditzadan gure taldeak egin-dako igoerak:




■ ROSTAMNESH 4500 ETA TAKHT-E-ROSTAN 4426

Inolako zailtasunik gabeko ibilaldia, beraz igoera guztiz gomendagarria altuerara egokitzeko. Aterpetik argi sumatzen da bidea leporaino eta behin lepora helduz gero tontor bietarainoko zidorrak ere erraz aurkituko ditugu.

■ TAKHT-E-SOLIMAN 4659

Oso mendi polita eta gustagarria. Ibilbidearen hasiera nahiko nahasia da glaziarraren morrena zeharkatu behar delako haitz eta harriek sorturiko anabatatik. Glaziarra zeharkatu ondoren harrizta oso aldapatsutik gora joko dugu, sarritan eskuen laguntza behar izango dugularik. Harrizta honen amaieran haitzen arteko estual-



Argazkiak.

- 1 Sachal aterpea, atzean Takht-e-Soliman mendia
- 2 Sachal aterpea
- 3 Ezkerrean Alam Kouh eta eskuman Takht-e-Soliman Sachaletik ikusita
- 4 Alam Kouh: Chalou-Passetik bide normala (erdian mendizale batzuk ikus daitezke)

dia dago eta zailtasun handirik egon ez arren, jaitsieran soka baten laguntza komenigarria izan daiteke harrien erorketa etengabekoa eta arriskutsua delako leku honetan. Estualdia gaindituta gailurrerara heldu eta tontorrera.

■ ALAM KOUH 4850

Altueraz Irango bigarren mendia eta inguruko mendirik deigarriena (agian Iran osokoa, Damavand-en altuera alde batera utzita). Mendi honen iparraldeko horman interes handiko eta zailtasun ezberdineko eskaladak daude; zalantzarik gabe eskalatzaileentzat leku guztiz egokia. Bide normalari dagokionez, glaziarra zeharkatu behar da "Chalon Pass"earen baseraino. Oraingo honetan bidea erabiliagoa eta beraz nabariagoa da Takht-e-Solimanen kasuan baino. "Chalon Pass"era igotzeko harrizta aldapatsua gainditu beharko dugu eta handik argi ikusten da igo eta trepatu beharreko horma zuta. Horma honetan "paso" ugari daude eta zailtasun gehiegikoak ez diren arren, "patio" ederra daukate. Zenbait leku-tan kate lagungarriak daude. Hormaren goiko aldetik, ertzari lotuz eta gailurreria jarraituz, zertxobait jaitsi behar da azken harriztari ekiteko. Azken zati hau hegoaldeko isuritik igotzen da.

■ CHALON 4516 ETA SEYAH KAMAN 4472

Chalon nolabaiteko kontsolazio saria dela esan dezakegu; taldeko batzuk nekatuta badaude edo Alam Kouh-en horma ikaragarriari errespetua badiote, Chalon tontorra dago eskuragai Chalou-Pasetik ertza jarraituz ezustekorik gabe. Seyah Kaman-ari dagokionez, taldeko inork ez zuen egin, baina Chalon menditik tontor honetarainoko ertza ikusten zen, eta ez genuen zailtasun berezirik sumatu.

■ ZENBAIT OHAR KOMUN

1. Tontor guztiak egin daitezke goiz luze batean, aterpetik irten eta eguerdian edo arratsaldeko lehenengo orduan itzuli. Alam Kouh luzeagoa da (6-7 orduko igoera).
2. Bide normaletatik igotzeko guk ez genuen inolako material berezirik erabili (ez kranpoirik, ez pioletarik). Bastoiak lagungarriak dira oso, eta Takht-e-Soliman eta Alam Kouh-en soka gomendagarria da.
3. Gure iritziz mapetan akatsak daude. Behin baino gehiagotan mapetan ulertzen genuenak eta begi bistan geneukanak ez zuten bat egiten, beraz Roobarak herrian gida baten laguntza bilatzea aholka daiteke.
4. Artikulu honetan emandako altuerak bertako mapetan erabilitakoak dira; hala ere aitortu behar da gure altimetro guztiek, kasu guzti-guztietan 100-200 metro gutxiago adierazten zutela, altimetroak ez dira guztiz fidagarriak, baina... tira kointzidentzia gehiegi altimetroetan.
5. Berrito gogoratu, ur eskasia dagoela.
6. Inguru honetara sartzeko 20 dolarreko tasa ordaindu behar da pertsonako.

■ TOUCHAL 3965

BIGARREN ZATIA

INTERES gutxiko mendia dela esan nezake

gutziz turistikoa dela errez jabetuko gara eta mendizaleentzat interes gutxikoa esan dugun bezalaxe.

Adi, "interes gutxikoa" esateak ez du esan nahi "interesik gabekoa" zenbait alde on eta erakargarri dituelako mendi honek: alde batetik Teheran hiriarren gain-gaiean dago eta beraz hiri honetako oso ikuspegi ona eskaintzen digu, bereziki teleferikoaren erdiko geltokietatik. Beste aldetik, eta hauxe izan daiteke aipagarriena: Iranen gure helburua Damavand bada eta denbora gutxi baldin badugu Sachal eskualdera hurbiltzeko eta altuerara egokitzeko, interesgarria izan daiteke mendi honen igoera egitea; hoteleko atarian taxia hartu "Touchal telekabina-raino" eta goiko geltokira igo beharrean erdikoetariko batean gelditu (2400 eta 2900 metroan aurkitzen dira) eta handik tontorrera abiatu galbiderik gabeko pistetatik teleferikoen kablean azpitik. Azkenik, bitxia izan daiteke mendi honen maldetan aurkitzen diren eskiatzeko pistak ezagutzea.

■ DAMAVAND 5671

HIRUGARREN ZATIA

KONDAIRA honetan errez. Asma daitekeenez, sumendia dugu Irango sabaia

ikusten diren ke adarrak eta entzuten diren lur barneko zaratak Zahakek, alde egiteko ahaleginetan egindakoak direla esaten da inguruko herrietan. Kondaira honetan errez asma daitekeenez, sumendia dugu Irango sabaia.

Sumendi hau guztiz ikusgarria da inguruko tontorretan ia 2000 metroko aldea kentzen baitie. 183. PYRENAICA-k azaltzen du Nadal herritik egindako igoera. Gu aldiz, Raineh herritik (2100 metroan) abiatu ginen. Herri honetan aterpea dago: ondo hornitua eta egokia (garbiketaxoren bat ondo etor lekioken arren). Herritik todoterrenoz meskita txiki bateraino hurbildu ginen (3000 m), gure herriko mendietan ditugun baselizekin pareka litekeena, eta handik zakutoak, motxilak e.a., garraiatzeko hitzartutako astoen laguntzaz ekin genion aterperaino bideari. (4 ordu).


Aterpea gela bakarreko eraiketa da: zikina, hezea, desatsegina eta ohol batzuk bazter batean lo egiteko "omen". Askoz osasuntsuagoa eta gomendagarriagoa da beraz, inguruetan kanpatzea guk egin genuen bezalaxe. Tresna guztiak ekarri behar dira honaino aterpean ez baitago ezertxo ere. Oraingo

Interes gutxiko mendia dela esan nezake, behintzat uda garaian, Teheranetik bertatik teleferikoz igo baitaiteke 3740 metroraino. Zenbaki hauek ikusita igoera

honetan, aldiz, ura lortzeko ez dago inolako arazorik aterpearen ondoan ur emari handiko iturria dagoelako.

Une honetatik aurrera konta dezakedana ez dakit egiazi oso era egokian lotuko zaion ala ez. Damavand-ek ez omen du zailtasun berezirik eta udan elur gutxi ei dauka. Igoera, dirudienez, ez da oso zaila, aldapatsua bai, eta labak eragindako ertzetatik elurguneak alboratuz, zailtasun larregirik gabe lortzen da tontorra 5-6 ordutan. Tontorretik gertu sufre usain indartsuak zailtzen du arnasketa. Hori da behintzat gidetik eta bertan izandako mendigoizaleek esaten dutena.


Gure kasua zeharo ezberdina izan zen, horrexegatik agian guk



Irango mitologiako Feraydun borrokariak Zahak erraldoi gaiztoaren aurka borrokatu, garaitu eta mendiko haitzulo batean kateatu zuen. Gaur egun, oraindik ere, mendi gaiean noizbehinka

bitzikoa eta ohiko errealitatea oso ezberdinak direla esan dut. Gurean, aterpeko inguruetara heldu bezain laster, lainoak harrapatu gintuen eta ia 48 ordutan haizea, euria, txingorra eta elur ekaitza izan genuen lagun (edo etsai) atsedetik gabe. Tontorra lortzea ezinezkoa izango zela ziurtasun osoa genuenean, aterrunetxo bat zabaldu zen eta igoerari ekin ahal izan genion gaueko 4etan. Guk mendi zuria aurkitu genuen, ertz guztiak elurrez beterik. Ozta-ozta tontorra heldu eta laino trinkoak ez zigun inolako aukerarik eman inguruaz gozatzeko. Jaitsieran berriro ere elurrari ekin zion. Gida liburuarekin bat egiten zuen datu bakarra sufre usaina zen eta gurekin batera igo ziren irandarrek truketxo bat erabili zuten hatsari aurre egiteko: limoi baten erdia sudur puntan jarri. (Hirira heldu bezain laster jakin ahal izan genuen guk mendian pairaturiko ekaitzak Irango zenbait herrietan uholdeak eragin zituela eta ehunka hildako egon zirela inguruetan). □





FARGAZIAK GUILLERMO VIO

MONTES DE IRÁN. Unos apuntes

IRÁN es un país de contrastes, desde el desierto, hasta grandes cumbres. En este viaje realizado con Banoa recorrimos una de las zonas montañosas más interesantes del país ascendiendo al Rostamnesh 4500, Takht-e-Rostan 4426, Takht-e-Soliman 4659, Alam Kouh 4850 y Chalon 4516 desde el refugio Sachal (3850), al cual se asciende desde el pueblo de Roobarak.

Por otra parte, desde el pueblo de Reineh ascendimos a la cumbre mas alta del país, el Damavand (5671). La ascensión a esta montaña de origen volcánico no tiene grandes dificultades técnicas, aunque nosotros tuvimos un tiempo infernal que nos dificultó mucho la subida.

Por último también citar el Touchal (3965), interesante por su cercanía a Teherán y por lo tanto facilidad para la aclimatación y poder posteriormente acometer ascensiones de mayor envergadura. □

Argazkiak.

- 5** Touchal mendiko tontorra
- 6** Damavand, beheko meskitatik ikusita
- 7** Damavand, aterpearen inguruan ekaitza baino lehen

Datu orokorrak

Antolakuntza

Bidai honen antolakuntza meritu guztia "BANOIA" bidai agentziarena da eta oso egokia izan zela aitortu behar dut.

Mendizaleak

Agustin, Candi, Gaizka, Guillermo, Jose Luis, Juan Carlos, Luis, Marc, Neus, Pablo, Pedro eta Pere. Goraintziak guztiei.

Data

2001eko abuztua (Damavand, abuztuaren 12an)

Mapak

Hiru eskualde hauetako mapak (Touchal- Sachal eta Damavand) bertan erosi daitezke, behintzat guk telekabinako beheko geltokian, Roobarak eta Raineh herrietako aterpetan lortu genituen.

Eguraldia

Teheranen beroa, bero handia abuztuan. Mendialdean eguzkitsua, atsegina, eta euri zaparrada batzuen arriskua arratsaldeetan. (Gurea "zaparradatxoa" baino zerbaite gehiago izan arren). Gauak freskoak, hotzak, dira, lo zaku ona eskergarria da.

Agiriak

Iranera joan ahal izateko pasaporte eta hango bisadoa behar beharrezkoak dira. Pasaporteei gutxienez 6 hilabeteko indar epealdia gelditu behar zaie eta erlijioa dela eta, emakumeek beloz jantzi behar dute bisadoaren argazkia.

Bidaiak

Aukera ezberdinak egon arren, gu "Iberian" joan ginen Frankfurtura eta handik Teheranera "Air Iranen". Itzulia Erromatik egin genuen, hegazkin agentzi berberetan.

Hizkuntza

Hizkuntza nagusia eta ofiziala, baina ez bakarra, "Farsi" da. Teheranen eta hiri turistikoetan nahiko errez aurki daitezke ingelesez dakien jendea. Mendian... keinuka edo.

Txanpona

Riala da bertako txanpona. Dolarra trukatzeko ez dago zailtasunik hiri handietako bankuetan. 2001ean ez zegoen indarrean oraindik Euroa.



Osasuna

Iranen sartu ahal izateko ez da txerto berezirik behar.

Janskera

Erljioa dela eta, gizonen ez dute arazorik, gutxienezko errespetua zenbait lekutan eta kitto. Emakumeek aldiz, gehiago zaindu behar dute janzkera, beloa beti eraman behar baitute. "Beti" hau legeak agintzen du, baina mendian gora, zaindaririk ez dago beraz....

Barneko garraioak

Autobusen zerbitzua ona da, hala ere, esan dugun bezalaxe BANOIA agentziarekin bidaiatu genuen eta BANOIA arduratu zen antolakuntza guztiaz. Gu "minibus" batean mugitu ginen Iranetik arazorik gabe. Aukera kontua da, zure kabuz bidaiatzea edo agentzia baten bidez, gauza guztiek dituzte alde onak eta ez hain onak.